# Denbora-

## 1 Esaldiak osatu

Euskara azterketa du Iñigok. Lagunduko al diozu galdera hau egiten? Horretarako, hitzen ordez egindako marrazkiak argitu, eta esaldiak osatu beharko dituzue.

Euria hasi duenez,  ireki behar izan dut

 asko jausi zaizkio gure etxe aurreko zuhaitzari

 egin dut oporretan Benidormera joateko

Idatzi esaldiak oso-osorik.

______________________________

______________________________

______________________________




## 2 Harri- jasotzaileak

Martinek eta Peiok apustua egin dute.
Nork jaso du kilo gehien?







## Jolasa

Nork aztoratu ditu robotak? Horixe asmatu beharko du espazio ontziko kapitainak jolas honetan. Adi-adi egotea da kontua

### Robotak



**1** Espazio ontzi batean zaudetela pentsatu. Bat-batean, espazio ontziko robot guztiak erotu egiten dira, eta ez diote kasurik egiten kapitainari. Roboten buruaren aginduei baino ez diete egiten kasu. Lurrera bizirik iristeko, roboten burua nor den argitu beharko du espazio ontziko kapitainak. Horretarako, kapitaina nor den erabaki beharko da lehenbizi. Ondoren, kapitainak jakin gabe, roboten burua aukeratu beharko dute gainerakoek.

**2** Robotek biribil bat osatuko dute, eta, erdian dagoela, haien burua nor den asmatu beharko du kapitainak. Baina nola? Kapitaina konturatu gabe, roboten buruak keinu eta mugimendu batzuk egingo ditu, eta gainerakoek errepikatu egingo dituzte. Kapitainak adi-adi egon beharko du, eta robot burua keinuak egiten harrapatu.

**3** Asmatzen duenean, roboten burua kapitaina izango da, eta hark asmatu beharko du roboten buru berria nor den. Zenbat eta jende gehiago bildu, jolasa dibertigarriagoa izango da.

# -pasak

## 4 Mamuen mezua

Mamu bakoitzak hizki bat du soinean, baina Manuk lekuz aldatu ditu. Zenbaki bera duten mamuak elkartuz gero, hitz bat osatuko duzue.






## 3 Labirintoa

Eneritz mahaia jartzen laguntzen ari zaio amonari. Sardexka prest du, baina koilara falta zaio. Lagunduko al diozu topatzen?

## 5 Hizki salda

Salda goxo honetan ondo begiratuz gero, hitz hauek topatuko dituzue. Adi ibili!




| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| D | A | L | D | U | I | J | O |
| N | U | Z | T | N | A | R | E |
| S | I | R | X | T | A | K | Z |
| E | D | F | M | X | O | L | J |
| G | H | Z | U | N | I | M | K |
| L | U | N | T | U | J | F | U |
| A | J | E | R | B | I | E | I |
| B | G | O | T | N | L | A | L |
| U | G | I | Z | A | R | T | E |
| R | O | D | E | T | E | K | G |
| P | R | I | O | U | G | N | O |
| E | Z | R | A | S | E | R | K |
| N | K | A | M | A | B | N | I |
| E | E | T | L | B | E | R | T |
| T | R | N | U | D | N | A | U |
| Z | U | I | T | R | U | O | R |
| I | R | G | B | I | O | N | A |
| A | X | A | Z | T | T | X | N |
| Z | I | E | N | T | Z | I | A |

Erantzunak: 1-Euria egiten duenez, aterkia ireki behar izan dut / Hosto asko jausi zaizkio gure etxe aurreko zuhaitzari / Maleta egin dut oporretan Benidormera joateko. 2-Martin: 1050 + 900 + 600 + 625 = 3175 kilo, Peio: 1650 + 450 + 300 + 875 = 3275. Peiok jaso du kilo gehien. 4-Erbesteratze, pentsakizun, zaborbiltzaile, tabernakulu, liluratzaile, legegintzaldia.